



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

2.014KO APIRILAK 3

OHIKO PLENOA

Bertaratuak:

**ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:**

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga.
Harkaitz Arruti Eizagirre.
Oihane Arzalluz Beobide.
Iñaki Irulegi Apalantza.
Luis Berrondo Lanceta.

Bertaratu gabeak:

Leire Beristain Mendizabal.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Errezilgo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamalauko apirilaren hiruko hogeita bat ordu eta hamar minutu izanik, Errezilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**LEHENENGO PUNTUA:
2014KO MARTXOAREN 6KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Idazkariak 2014ko martxoaren 6ko akta onartzen den galdetzen du eta aho batez onartzen da.

**BIGARREN PUNTUA:
2013KO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.**

Idazkariak 2013ko likidazioaren berri ematen du, 42/2013 Dekretua literalki jakineraziaz:

“ALKATETZA EBAZPENA 42/2014



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

Udal honen 2013(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2013(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2013-12-31n:		20.528,67
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		74.003,50
Aurrekontuko zordunak :	73.010,04	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	993,46	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		67.619,27
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	22.947,20	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	44.672,07	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		26.912,90
5.- Saldo kobragaitzak:		-1.040,86
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		25.872,04
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		25.872,04



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-7.954,05
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-6.590,79
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	-14.544,84
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	33.207,98
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	18.608,54
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	51.816,52

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran".

Zinegotzi guztiak jakinaren gainean geratzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA:

**2014 EKITALDIKO AURREKONTUAREN ETA PLANTILA
ORGANIKOAREN HASIERAKO ONARPENA.**

Idazkariak 2014ko aurrekontuaren proposamena egiten du eta adierazten du aurrekontua 733.660,00 €-takoa dela, kapituloka laburpena ondorengoa delarik:

SARRERAK

I KAP	ZUZENEKO ZERGAK	134.200,00
II KAP	ZEHARKAKO ZERGAK	12.000,00
III KAP	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	59.200,00



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

IV KAP	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	403.410,00
V KAP	ONDARE SARRERAK	10.000,00
VII KAP	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	114.850,00
GUZTIRA		733.660,00

GASTUAK

I KAP	PERTSONAL GASTUAK	189.715,00
II KAP	ZERBI ETA OND ARRUN EROS	140.380,00
III KAP	FINANTZA GASTUAK	15.000,00
IV KAP	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	81.600,00
VI KAP	INBERTSIO ERREALAK	169.965,00
VII KAP	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	15.000,00
IX KAP	FINANTZA PASIBOAK	122.000,00
GUZTIRA		733.660,00

Ondoren, Idazkariak aurrekontuaren inguruan prestaturiko dokumentazioaren berri ematen du. Eta aldi berean Gipuzkoako Foru Aldundiak Errezilgo Udalaren 2014ko aurrekontu proiektuaren inguruan 2012ko abenduaren 18ko 11/2012 Foru Arauak, Errezilgo Udalaren aurrekontu eta finantza bideragarritasunerako ezohiko neurriak onartzen dituenaren 4.artikuloaren bitartez ezarritako obligazioa betetzeko txostenaren berri ematen du.

Ondoren, Idazkariak aipatzen du, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan aipatzen dena beteaz, aurrekontua jendeaurreko informaziora jarri behar dela, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den lanegunetik hasi eta hamabost laneguneko epean erreklamazioak aurkeztu ahal izateko eta inolako erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena kontuan izan ondoren, hau da emaitza:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Harkaitz Arruti Eizagirre, Oihane Arzalluz Beobide, Iñaki Irulegi Apalantza eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, 2014ko aurrekontua aho batez onartzen da.

Urtero bezela, aurrekontuarekin batera, Udaletxeko plantila organikoa eta udal lanpostu zerrendak onartu behar direnez, 2014 ekitaldirako plantila organikoa Alkateak honako hauek izatea proposatzen du:



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

PLANTILA ORGANIKOA.

1.- Idazkari-Kontuhartzailea.

Lanpostuak-1
Taldea-A1
Egoera-H
Udalhitz maila-19

2.- Administrazio Orokorreko Administrari laguntzailea.

Lanpostuak-1
Taldea-C2
Egoera-J
Udalhitz maila-11

3.- Aguazila/Jakin eratzaile/ Lurpera.

Lanpostuak-1
Taldea-Agrup prof
Egoera-F
Udalhitz maila-11

4.- Garbitzailea.

Lanpostuak-1
Taldea-Agrup prof
Egoera-F
Udalhitz maila-7

Tramitea jarraituaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, jendeaurrean egoten den 15 egunetako epean inolako erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena kontuan izan ondoren, hau da emaitza:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Harkaitz Arruti Eizagirre, Oihane Arzalluz Beobide, Iñaki Irulegi Apalantza eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, 2014 ekitaldirako plantilla organikoa aho batez onartzen da.



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

**LAUGARREN PUNTUA:
2014 EKITALDIKO UDAL LANPOSTU ZERRENDAREN HASIERAKO
ONARPENA.**

Idazkariak gaiaren laburpen bat egiten du:

UDAL LANPOSTU ZERRENDA.

1.- Idazkari-Kontuhartzailea:

Eskala- Estatuko gaitasuna.
Azpieskala- Idazkaritza-Kontuhartzaitza
Izaera- Funtzionaria
Taldea-A1
Maila-19
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 4^a
Derrigortasun data- 1991-06-27
Titulazioa- Z/E/S Liz
Hornitzeko sistema- lehiaketa

2.- Administrari laguntzailea:

Eskala- Administrazio Orokorra
Azpieskala- Administrari laguntzailea
Izaera- Funtzionaria
Taldea-C2
Maila-11
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 3^a
Derrigortasun data- 1993-02-26
Titulazioa- Lanbide heziketa
Hornitzeko sistema- lehiaketa

3.- Aguazila:

Izaera- Laborala
Taldea- Agrup prof
Maila-11
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 2^a
Derrigortasun data- 1991-06-27
Titulazioa- Eskola graduatua

4.- Garbitzailea:



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

Izaera- Laborala
Taldea-Agrup prof
Maila-7
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 1ª
Derrigortasun data- 2011-08-11
Titulazioa- Eskolaritate ziurtagiria

Tramitea jarraituaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, jendeaurrean egoten den 15 egunetako epean inolako erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Bozketa egin ondoren eta Batzordearen diktamena kontuan izan ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Oihane Arzalluz Beobide, Harkaitz Arruti Eizagirre, Iñaki Irulegi Apalantza, eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, 2014 ekitaldiko udal lanpostu zerrenda aho batez onartzen da.

BOSTGARREN PUNTUA: 2014 URTERAKO EGUTEGI LABORALAREN ONARPENA.

Idazkariak batetik, 2013ko urriaren 21eko Gipuzkoako lan, enplegu eta gizarte politeketako lurralde ordezkariak 2014 urterako Gipuzkoako lurraldeko tokiko jaiegunak onartzen dituen ebazpenaren berri ematen du.

Bestetik, hileta bat suertatzen denean, Plenoko data honetatik aurrera, langileak hilerrian egindako lanen orduen inguruan Alkateak ondorengo proposamena luzatzen du:

1.- 2008ko irailaren 22an Toki Erakundeetako langileen lan baldintzak arautzen dituen 2008-2010 lan-kontratudun langileen lan baldintzen hitzarmeneko 39.10.artikuloaren arabera, librantza denbora ematen den konpentsazioetarako, honako irizpide hauek jarraituko dira:

a) Lanalditik kanpo egiten den ordu bakoitzeko ordu bat eta hiru ordu laurdeneko konpentsazioko atsedena hartzeko eskubidea izango da, laneguna bada.

2.- Hileta astebukaeran tokatzen daba, hileta bakoitzeko (nahiz hildakoa nitxoan, lurrean edo panteoian lurperatu) 12 orduko eskubidea izango du.



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

3.- Hileta jaiegunetan edo astebukaeran tokatzen bada, nahiz eta hiletako lanak aurretik egin, astebukaerako hileta bat bezela konputatuko da.

Bozketa egin ondoren eta Batzordearen diktamena kontuan izan ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Oihane Arzalluz Beobide, Harkaitz Arruti Eizagirre, Iñaki Irulegi Apalantza eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, 2014 ekitaldiko egutegi laborala aho batez onartzen da.

SEIGARREN PUNTUA:

ERREZILGO UDALA ETA ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN S.AREN ARTEKO LANKIDETZAKO HITZARMEN-MARKOA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Oihane Arzalluz zinegotziak Errezilgo Udala eta Itten, Herriekin lan egiten S.Aren arteko lankidetzaren berri ematen du. Ondoren aipatzen du beraiekin izandako bileran, Urreizti Udaletxe atzean egiten hasitako etxebizitzaren gaia aztertzeotan geratu zirela. Ittenek proiektuak egiten dituela jakinerazten du eta proiektuak kosturik ez daukatela, nahiz eta exekuzioa Udalaren esku joan.

Ondoren Alkateak aipatzen du honen inguruan Domusako zuloaren gaia ere aztertu behar dala.

Iñaki Irulegik galdetzen du ea proiektuak norik finantziazten dituen. Alkateak Diputazioak erantzuten dio.

Bozketa egin ondoren eta Batzordearen diktamena kontuan izan ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Oihane Arzalluz Beobide, Harkaitz Arruti Eizagirre, Iñaki Irulegi Apalantza eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, Errezilgo Udala eta Itten, Herriekin lan egiten S.Aren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea, finantzazio nahikoa dituzten udal proiektuak burutzeko eta Alkatea den Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereari lankidetzaren hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea aho batez onartzen da.



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

ZAZPIGARREN PUNTUA:

ERREZILGO UDALA ETA BIDEGI GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA-AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS S.A-REN ARTEAN UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Idazkariak Errezilgo Udala eta Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana De Infraestructuras S.Aren artean udal erroldaren datuak egiaztatzeko lankidetzaren hitzarmenaren berri ematen du.

Bozketa egin ondoren eta Batzordearen diktamena kontuan izan ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Oihane Arzalluz Beobide, Harkaitz Arruti Eizagirre, Iñaki Irulegi Apalantza eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, Errezilgo Udala eta Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana De Infraestructuras S.Aren artean udal erroldaren datuak egiaztatzeko lankidetzaren hitzarmena onartzea eta Alkatea den Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea aho batez onartzen da.

ZORTZIGARREN PUNTUA:

ERREZILGO UDALA ETA PELAIO IRULEGI IRAOLA JAUNAREN ARTEAN SAN MARTIN KALEKO 10.ZENBAKIA DUEN BELAMENDI-BERRI ERAIKINEKO BEHE SOLAIRUAN KOKATUTA DAGOEN GARAJEA EGOITZA-ERABILERARA ALDATZEKO HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Idazkariak Errezilgo Udala eta Pelaio Irulegi Iraola jaunaren artean San Martin kaleko 10.zenbakia duen Belamendi-Berri eraikineko behe solairuan kokatuta dagoen garajea egoitza-erabilerara aldatzeko hitzarmenaren berri ematen du.

Bozketa egin ondoren eta Batzordearen diktamena kontuan izan ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Oihane Arzalluz Beobide, Harkaitz Arruti Eizagirre, Iñaki Irulegi Apalantza eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

Beraz, Errezilgo Udala eta Pelaio Irulegi Iraola jaunaren artean San Martin kaleko 10.zenbakia duen Belamendi-Berri eraikineko behe solairuan kokatuta dagoen garajea egoitza-erabilerara aldatzeko hitzarmena onartzea eta Alkatea den Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea aho batez onartzen da.

BEDERATZIGARREN PUNTUA: ZENBAIT MOZIOEN ONARPENA.

1.- 2014ko Aberri Eguna dala eta, 2014ko martxoaren 26an UDALBILTZAren izenean Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereak aurkezturiko mozioak literalki zera dio:

“Euskal Herritarrak gara eta ozenki adierazi nahi dugu”

Aturritik Ebrora eta Enkarterrietatik Auñamendira, Pirinioetako bi aldeetan 685 udalerrietan bizi garen 3 milioi euskal herritarren gehiengoak, gure hizkuntza, kultura, edo jatorria edozein izanik ere, Euskal Herritar gisa bizi nahi dugu. Gure eskubide zibil eta politiko barne, Nazioarteko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaletik eratortzen diren eskubide guztien jabe bizi nahi dugu Euskal Herri osoan.

Baina hori, zoritxarrez ez da gaur guk pairatzen dugun errealitate politiko administratiboa. Euskal Herria estaturik gabeko herri bat da, eta gu, euskal herritarrok gure borondatearen gainetik, ofizialki frantziarrak edo espainiarrak izatera beharturik gaude. Gure udalerriak 2 estatueta sakabanaturik daude. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko 159 udal Frantziako Errepublikako Akitania izeneko erregioaren Pirinio Atlantikoetako departamentuaren barruan daude, Biarnoarekin batera diluiturik, inolako aitortza politiko administratiborik gabe. Bestetik, Espainiako Erresuman administratiboki kokatzen dira beste 526 udal. Hurrenez hurren: 272 Nafarroako Foru Komunitate izeneko Autonomia elkargoan, 251 Euskadiko Autonomia Elkargoan, 2 Gaztela-Leongo Autonomia elkargoko Burgos Probintzian eta azken bat Kantabriako elkargo autonomoan.

Errealitate hori ez da Euskal Herritarrek libre eta demokratikoki erabaki egin duguna, gerra eta konkistaz beteriko historiaren ondorioa baizik. Errealitate hori era demokratiko batean aldatzeko, Euskal Herriko udalek lan aitzindaria eta garrantzitsua egin dute historikoki. XX. mendean adibidez, horren lekukoa da 1931. urteko Lizarrako estatutua, 1976. urteko Bergarako alkateen mugimendua edo Ipar Euskal Herriko 1998. urtean Euskal Departamenduaren alde egindako aldarrikapen eta mobilizazioak.

XXI. mendea hastear zegoelarik Euskal Herriko udal eta Udal hautetsien Biltzarra, Udalbiltza, beste mugarri esanguratsua izan zen.

2014. urte honetan abagune berezia ari gara bizitzen. Begi bistan daude kontrako eta aldeko faktoreak. Alde batetik, nabaria da Espainia eta Frantziaren ezezko



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

iraunkorra... Baina han daude ere Europako estatu berrien sorrera, Katalunia eta Eskoziaren autodeterminaziorako erreferendumak edo "gure esku dago" bezala, Euskal Herrian sortzen ari diren herri ekimen arrakastatsu berriak edo itxaropentsuak izatera bultzatzen gaituen Independentziari buruzko Etxarriko herri kontsultak.

Horregatik, Euskal Herriaren egunaren bezperetan, Euskal Herritarren egunera hurbiltzen ari garenean, aurreko guztia aintzat hartuz, Errezilgo udalak Aberri Egunerako ohiko osoko bilkura honetan aho batez, hurrengo adierazi nahi du:

1.- Euskal Herritarrak garela adierazteko garaia heldu dela eta ozenki esan nahi dugulako, Euskal Herritartasunaren aldeko herri dinamika sortzeko eta sustatzeko deia luzatzea erabaki dugu.

2.- Kaleetan zein eraikuntza publiko eta partikularretan Euskal ikurrak jartzeko gonbidapena luzatzen dugu honen bidez. Zer ez garen baino, garena eta sentitzen duguna ikurren bidez publikoki adierazteko gonbidapena luzatu nahi diogu herritar orori.

3.- Zer garen gaur, iragana ezagutu gabe oso zaila delakoan, aitzineko zein garaikidea den oroimen historikoa berreskuratzeko konpromisoa hartzen dugu. Hala ere, iragana baino gehiago, oraina eta -batez ere- etorkizunari erreparatu nahi dugunez gero, kultur, hizkuntz eta identitate aldetik anitz eta aberatsa sortzen ari den Euskal Herri berri honi so egiten diogu. Horregatik, atxikimendu librean oinarriturik, Herritartasun Agiri Ofizialaren beharra aldarrikatu, eta ekimen bateratua, ofiziala eta eraginkorra sortzeko konpromisoa adierazi nahi dugu.

4.- Independentziari buruz Etxarriko herriak apirilaren 13an burutuko duen herri kontsultari erabateko babesa adierazi nahi diogu. Erabakitzeko eskubidearen ariketa demokratiko praktikotzat jotzen dugu eta zentzu honetan bere zilegitasuna aitortu nahi dugu.

5.- Zentzu berean eta arrazoi berdinegatik, "Gure esku dago" herri ekimenak ekainaren 8rako antolatu duen Iruñea eta Durangoren arteko giza katean parte hartzeko deia, eta oro har, "Gure esku dago" herri dinamikari erabateko babesa adierazi nahi diogu.

HAMARGARREN PUNTUA: ORDAINAGIRIEN ONARPENA.

Ez dago ordainagiririk.

HAMAIKAGARREN PUNTUA: ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda jakinarazten du, hau da, 2014ko otsailaren 26tik (29/2014 Alkatetza Ebazpena) 2014ko martxoaren 20ra (43/2014 Alkatetza Ebazpena) bitarteko Dekretuak.

HAMABIGARREN PUNTUA: GALDERAK ETA ERREGUAK.

1.- Idazkariak batetik, maiatzaren 1a osteguna tokatzen dala eta ohiko plenoa apirilaren 30ea aurreratzea eta bestetik, 2014ko maiatzaren 25eko Europar Parlamentuko mahaikideak aukeratzeko zozketa apirilaren 28an eguandiko 14:00etan izatea proposatzen du. Aho batez onartzen da.

2.- Iñaki Irulegik galdetzen du ea aurreko urtetik ordaindu gabe geratu diren ibilgaiuen zergak ordaindu diren. Idazkariak ezetz erantzuten dio.

3.- Oihane Arzalluzek dio inbertsio planean espedientean, bai zanjak egiteko eta bai iturgintzako lanak egiteko Iturtxotik Harrobitxuloko ur depositura hodiak berritzeko aurrekontuak eskatu ditugula eta merkeenak Landeta Iturgintza eta Excavaciones y Desmontes Lagunak, S.L. enpresak izan direla eta ondorioz, obra hauei esleituko zaiela.

Ondoren, Maria Jesusek aipatzen du goizean Gipuzkoako Foru Aldundiko guarda izan dala obra ikusten eta errepidea ikutzeagatik dagokigun baimena eskatzeko esan digula.

4.- Idazkariak aipatzen du Tolosaldea Garatzenen biltzen garen herri ezberdinen artean Udal bakoitzak bere hitzarmen propioa eginez udal ondasunen inbentarioa egiteko proiektua dagoela. Denak jakinaren gainean geratzen dira.

5.- Alkateak dio azkenik konposta egiteko txabola Domusaren ondoan nere jabetzako terrenoan jarriko dala. Udala gaia aztertzekotan geratu da.

6.- Oihane Arzalluzek dio apirilaren 24an herriko umeek dantza egin eta trikitixa joko dutela eguneko zentruan eta ondoren Borondegina txokolatada izango dala.

7.- Udalbatzak aho batez erabaki du Alkatea den Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereari baimena ematea, Errezilgo Udala hilerrian panteoiak eraikitzeke 3 partzela 75 urtez esleitzeko emakida administrazioaren araubidean, esleipendun izan direnekin hitzarmena sinatzeko.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko hogeita bi ordu eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut

